# INGURUNEA

## KOKAGUNEA[1]

Bakio udalerria URIBEko eskualdean dago eta Mungiatik eta Bermeotik 12na kilometrora dago, Burgoa (447 metro), Garbola (474 metro) eta Jata (592 metro) mendiak inguratuta. Lehenengo mendi biak Sollubetik Matxitxako lurmuturreraino jaisten dan mendikatean dagoz eta hirugarrenetik –Jatatik– Bakio, Gaztelugatxe eta Aketxatxa ikusi ahal doguz.

Ibai bik zeharkatzen dabe Bakioko ibarra: nagusia Zarraga ibaia da, kaiaren ondoan amaitu baino lehen izen bereko trokartetik eta Elorriaga, Karrakola, Amutzaga eta Osinagako trokarteetatik eta erreka askotatik datozan urak jasotendauzana; bestea Ondarra ibai txikia da, Burgoa eta Garbola mendien hegaletatik datorran eta hondartza erdi-erdian amaitzen dana.

Gure herriak 112 baserri daukaz, 7 auzotan banatuta dagozanak. Zazpi auzo horreekhonakookdoguz: Artzalde, Basigo (Elexalde, XX. mendearen erdialdera arte), Bentalde, Goitisoloalde, Urkitzaurralde, San Pelaio eta Zubiaurralde. Hedadura 16,12 km²-koa da.

Honako mugakideok dauz: Iparraldean Bizkaiko Golkoa, Hegoaldean Mungia, Ekialdean Bermeo eta Mendebaldean Mungia, Maruri-Jatabe eta Lemoiz.

Mungiatik udalerrira sartzeko bidea BI-3101 toki errepidea da. Lemoiztik sartzeko bideak BI-2153 (Lemoiz-Armintza) eta BI-3152 (Armintza-Bakio) foru errepideak dira. Ohiko talde-garraiabidea BizkaiBus autobus linea da.

## BAKIOKO HISTORIA[2]

Erdi Aroan sortu zanean, Bakioko Eleizatea auzunetan antolatuta egoan eta gune nagusi bi eukazan: alde batetik, Basigo –beraren barruan Mungiakoa zan barrendegi bat egoan– Eleizate independentea, parrokieleizeadauana; eta, beste alde batetik, Zubiaurrealdek eta San Pelaiok osotutako gunea. Gune horretako auzo biok Bakiok 1927an beretu arte Bermeo urikoak ziran.

Bertako ekonomia landakoa zan, baserria ardatz eukana, eta ia ez egoan ingurukoakazkoekonomi hartu-emonik.

XIII. mendetik aurrera, ekonomi jarduera handiagoaren ondorioz, familia batzuk udalerriaren jaube egin ziran. Orduan sortu ziran burdinola ospetsuak eta errota honeek: Goikolea -Burdinola eta Errota-, Gaztañazarreta (Kurtzikena), Olatxu -Burdinola eta Errota-, Urgura, Eitzaga, Zubiaurrerrotatxu (Errotatxu), Balandaerrota (Telleria), Elexpuruerrota (Katxuena), Errotatxu (Panaderiena), Bekoerrota, Bengolea -Burdinola eta Errota-, Urkitzaerrotazarra, Errotabarri, Urgitxi, Olazarra -Burdinola eta Errota-, Ureta, Azeretxokoerrota, Olabarri -Burdinola eta Errota-, Ondarra -Burdinola eta Errota- eta Ibarraerrota.

XVIII. mendearen amaieran jaubetza udalerriko bertako familia boteretsuen talde baten eskuetan bildu zan arian-arian: Elexpuru, Ormatza, Artetxe, Ciudad Realgo dukea, markes Mortarakoa, markes Torrecillakoa eta Sota, besteak beste.

1870 inguruan, Gerra Karlisten eta ekonomi krisien ondorioz, bakiotar askok Kubara joan behar izan eben, eta mendearen amaieran itzuli eta sekulako etxeak (Quinta-Torre, Clotilde etxea, Feliena...) eregiebezan, egun irauten dabenak.

XX. mendean udako lehenengo egoitzak sortu ziran: Etxegorri (Pili-Palas), Itxas-Begi, Bitz-Gane, Itxas-Ondo eta abar. 1970etik aurrera eraikin mota honeek ugaritu eta udalerrian zehar zabaldu ziran.

---

# BAKIO-GARBOLA-BURGOA-BAKIO IBILBIDEA

Ibilbideak 15km inguru izango ditu eta 4 ordutan, batez beste, egin daiteke. 575 metrotako desnibel metatua izanda.




## PROFILA



# ENTORNO

## LOCALIZACIÓN GEOGRÁFICA[3]

El municipio de Bakio pertenece a la Comarca de URIBE, distando 12 kilómetros de Mungia y 12 kilómetros de Bermeo, rodeado por los montes Burgoa (447 metros), Garbola (474 metros) y Jata (592 metros), los dos primeros situados en la cordillera que desciende desde Sollube hasta el cabo Matxitxako, y el tercero -Jata- nos permite divisar Bakio, San Juan de Gaztelugatxe y el Peñón de Aketxe.

Dos ríos atraviesan la vega de Bakio: el principal es el río Zarraga, que recibe aguas procedentes de su homónimo, el barranco de Zarraga, y de los barrancos de Elorriaga, Karrakola, Amutzaga y Osinaga y de numerosos arroyos antes de morir junto al muelle; y el pequeño Ondarra, procedente de las faldas del Burgoa y Garbola, y que desemboca en plena playa.

Nuestro pueblo cuenta con 112 caseríos repartidos en 7 barrios: Artzalde, Basigo (Elexalde, hasta mediados del S. XX), Bentalde, Goitisoloalde, Urkitzaurralde, San Pelaio y Zubiaurralde; con una extensión de 16,12 km².

Limita al Norte con el Golfo de Bizkaia, al Sur con Mungia, al Este con Bermeo y al Oeste con Mungia, Maruri-Jatabe y Lemoiz.

El acceso al municipio desde Mungia se realiza a través de la carretera local BI-3101, y desde Lemoiz tomando las carreteras forales BI-2153 (Lemoiz-Armintza) y BI-3152 (Armintza-Bakio), siendo el medio de transporte colectivo habitual la línea de autobuses BizkaiBus.

## HISTORIA DE BAKIO[4]

En su origen medieval, Anteiglesia de Bakio, se organizaba en barriadas, con dos núcleos principales: por un lado Basigo -dentro del cual existió un enclave perteneciente a Mungia hasta 1882- Anteiglesia independiente, que cuenta con iglesia parroquial; y un segundo núcleo, que sería el formado por Zubiaurralde y San Pelaio, ambos pertenecientes a la Villa de Bermeo hasta la anexión a Bakio en 1927.

Su economía rural giraba en torno al caserío, sin apenas contacto económico con el entorno.

A partir del Siglo XIII, fruto de una mayor actividad económica, ciertas familias se hacen con el control del municipio. Surgen entonces las famosas ferrerías, así como los molinos Goikolea -Ferrería y Molino-, Gaztañazarreta (Kurtzikena), Olatxu -Ferrería y Molino-, Urgura, Eitzaga, Zubiaurrerrotatxu (Errotatxu), Balandaerrota (Telleria), Elexpuruerrota (Katxuena), Errotatxu (Panaderiena), Bekoerrota, Bengolea -Ferrería y Molino-, Urkitzaerrotazarra, Errotabarri, Urgitxi, Olazarra -Ferrería y Molino-, Ureta, Azeretxokoerrota, Olabarri -Ferrería y Molino-, Ondarra -Ferrería y Molino- e Ibarraerrota.

A finales del Siglo XVIII se produjo una progresiva concentración de la propiedad en manos de un grupo de poderosas familias del propio municipio: Elexpuru, Ormatza, Artetxe, Duque de Ciudad Real, Marqués de Mortara, Marqués de la Torrecilla y Sota, entre otras.

Hacia 1870, con motivo de las Guerras Carlistas, y las crisis económicas, muchos bakiotarras se vieron en la obligación de emigrar a Cuba, regresando a finales de siglo y construyendo grandes mansiones (Quinta-Torre, Villa Clotilde, Feliena...) que hoy día se conservan.

[1]- 3 http://www.bakio.eus/es-ES/Turismo/Localizacion-geografica/Paginas/default.aspx
[2 – 4] http://www.bakio.eus/es-ES/Turismo/Historia/Paginas/default.aspx

## RECORRIDOBAKIO-GARBOLA-BURGOA-BAKIO

El itinerario consta de unos 15km y se puede realizar en unas 4 horas, teniendo unos 575 metros de desnivel acumulado.



## PERFIL




## DESCARGAR RECORRIDO

[https://eu.wikiloc.com/ibilbide-senderismo/bakio-garbola-burgoa-bakio-24542847](https://eu.wikiloc.com/ibilbide-senderismo/bakio-garbola-burgoa-bakio-24542847)